

SELEK 2022 ELEKTROKIMIKA

S22EA4


Erreakzio kimiko hau emanda :



- Doitu erreakzioa ioi-elektroi metodoa erabiliz.
- Adierazi, arrazoituz, zein espezie kimiko oxidatzen den eta zein erreduzitzen den
- Zenbat potasio permanganato 0,1M behar dira 250mL hidrogeno sulfuro gaseosoarekin erreakzionatzeko 10°C-an eta 1,2 atm-an?

S22EC2


Erredukzio potentzial normal hauek erabiliz:



- Arrazoitu ea erreakzio hau espontaneo izango den: $\text{Sn}^{+2} + \text{Cu} \rightarrow \text{Sn} + \text{Cu}^{+2}$
- Eztainu metalikoa HCl(aq) 1M-aren disoluzioan sartuta, sortuko al da hidrogeno gaseosoa?
- Marraztu eztainuko eta kobrezko elektrodoak dituen pilaren notazioa. Idatzi anodoan eta katodoan gertatzen diren erreakzio kimikoak.

S22UA4

HCl-arekin azidotutako potasio dikromato urtsuak burdin (II) kloruroarekin erreakzionatzen du ekuazio honen arabera:



Ontzi batean 3,172g burdin (II) kloruro eta 80mL potasio dikromato 0,06M ipintzen dira, eta HCl nahikoa gehitzen zaio erreakzioa gerta dadin.

- Adierazi zein den espezie oxidatzailea eta zein erreduzitzailea.
- Idatzi oxidazio- eta erredukzio-erdi erreakzioak.
- Doitu ekuazioa ioi-elektroi metodoa erabiliz.
- Kalkulatu zenbat gramo burdin(III) kloruro lortuko den.

S22UB2

Daniell pila bat egiteko,

- Adierazi zer material eta erreaktibo behar diren.
- Egin pilaren eskema edo marrazki bat, eta anodoa eta katodoa adierazi.
- Azaldu zertarako balio duen gatz-zubiak.
- Idatzi Daniell pilaren notazioa.